



INSTITUTO CHINO DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO TXINATAR INSTITUTUA

Donostia txinera azterketa ofizialen egoitza bilakatuko da aurten

Gipuzkoako Txinatar Institutuak maiatzaren 28an Kursaalean antolatuko ditu Gipuzkoako hiriburuan lehenengo aldiz ospatuko diren proba horiek

Donostia txinera azterketa ofizialen egoitza bilakatuko da aurten. Lehenengo aldiz, hinkuntz horretako ikasleak proba horiek egiteko ez dira beste lurralde batera mugitu behar, Donostian bertan egin ahal izango dituzte. Azterketa-zentro ofiziala den Gipuzkoako Txinatar Institutuak azterketak antolatuko ditu maiatzaren 28an Kursaalean.

Antolatuko diren probak HSK (Hànyǔ Shuǐpíng Kǎoshì) deitzen dira. Nazioarte-mailan txinerako azterketa estandarizatuak dira, eta txinera ama-hizkuntza ez duten hiztunei zuzendua daude. Edonor matrikula daiteke eta Kursaalean azterketak egin ditzake Gipuzkoako Txinatar Institutuaren bitartez. Izena emateko epea dagoeneko zabalik dago eta apirilaren 23ra arte luzatuko da. Interesatua dagoen orok deialdi horretako informazio guztia www.institutochinogipuzkoa.com web-orrian aurki dezake.

Gipuzkoar txinera ikasleak orain arte Gipuzkoatik kanpo ateratzea behartuta zeuden azterketa horiek egin eta beraien txineraren ezagutza-maila egiaztatzen duen ziurtagiria eskura ahal izateko. Azterketa horiek eskaintzen dituzten hirien artean gertuena Bilbo zen, non txinerako probak 2013tik ospatzen dira.

Azterketa ofizialak Txinera Atzerritar Hizkuntza Hezkuntzarako Bulegoak (HANBAN) kalifikatzen ditu. Azterketa horiek aukera ematen dute txinera maila egiaztatzen dituzten titulu ofizialak eskuratzeko. Horiek ezinbestekoak dira Txinako Fakultateetan sartzeko eta oso baliagarriak bai hemen zein Asiako herrialde horretan lan egiteko. Txinera jakitea eskatzen duten instituzio, erakunde eta enpresa guztiek erreferentzia bezala hartzen dituzte titulazio horiek.

Gipuzkoako Txinatar Institutua
C/Elkano 8, beheko solairua
20004 Donostia
638 426 502 / 943 431 789

info@institutochinogipuzkoa.com

www.institutochinogipuzkoa.com

